



Arartekoaren 2014R-172-14 ebazpena, 2014ko abenduaren 29koa. Horren bidez, Irungo Udalarari gomendatzen zaio Berdintasunaren aldeko Planean beharrezko neurriak har ditzala Alardean gizonezko eta emakumezkoen partaidetza parekideari buruzko arazo konpongabeari heltzeko, betiere plana prestatzeko garatutako partaidetza prozesuan proposatzen zen bezala.

Aurrekariak

1. Genero berdintasunaren alde lan egiten duten zenbait entitatek erakunde honetara jo dute; entitate horiek kexu ziren Irungo Udalak, Berdintasunaren aldeko III. Plana prestatzeko partaidetza prozesu bati jarraitu arren, prozesu horretan egindako proposamenen inguruko aipamenik egiten ez zuelako, San Martzialeko Alardean emakumezkoek parte hartzeko gatazkari dagokionez.
2. Entitate erreklamaziogileek herritarren partaidetzarako bideak ezartzen zituen prozesuari men egiten zioten; prozesu horren bitartez eta Elhuyar aholkularitzaren laguntza teknikoa baliatuz, Irungo zenbait kolektibok eta pertsonak aukera izan zuten udalerriko herritarrek emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren arloan kezkatzen zituzten gaien buruzko ikuspegia emateko. Gai horien artean honako hau ere badago: emakumezkoek San Martzialeko Alardean modu parekidean parte hartzeko arazo konpongabea, hain zuzen ere. Zenbait talderen arteko topaketen, bileren eta elkartrukeen emaitza gisa, Elhuyarrek plan proposamen bat egin zuen 14 programa txertatuz; horietariko batean gai horri heltzeko proposamena jasotzen zen. Gauzak horrela, Irungo udal gobernuari planaren proposamena egiten zitzaion, horrek prozesuari buru eman ziezaion, plangintza onetsiz.

Horren ondoren, udal gobernuak berak kexa sustatu duten elkarteei eskatu zien udal organo horrek igorritako plangintzaren zirriborroa baloratzeko eta hari buruzko ekarpenak egiteko. Nolanahi ere den, elkarteek zehazten duten bezala, orduan deigarria izan zen dokumentu berrian inolako aipamenik ez egitea Alardeko genero arrazoiengatiko berdintasun arazoari buruz, eta horrelaxe adierazi zuten 2013ko urrian zirriborro horren gaineko iritzia emateko bildutako Berdintasuneko Udal Batzordean. Une horretan egiaztatu ahal izan zuten – Berdintasun Batzorde horretan parte hartzen ari zen zinegotzi batek halaxe azaldu zuelako– plangintzaren zirriborrotik ezabatu zutela Elhuyarren hasierako proposamenak jasotzen zituen 14 programetariko bat, egin-eginean ere, San Martzialeko Alardean emakumezkoek parte hartzeari buruzko gaiari men egiten ziona. Erreklamaziogileek adierazitakoaren arabera, gertakari hori Irungo Udaleko Ongizate Ataleko zinegotzi-ordezkariek ere onartu zuten.



3. Salatutako egoera Irungo Udalarekin kontrastatu nahi izan genuen; horrela bada, eskatu genion egoerari buruzko balorazioak igor ziezagula, betiere partaidetzaren eta genero berdintasunaren gaian garrantzitsutzat jotzen genituen zenbait irizpide aintzakotzat hartuz.

Udalak erantzun eta baieztatu zuen honako proposamen hauek ez zituela jaso: egin-eginean ere, Berdintasunen aldeko III. Plana prestatzeko jarraitutako partaidetza prozesuaren ondoriozko dokumentuan Alardeari buruz jasotako jarduketa proposamenak. Adierazi zigun gai horri buruzko aipamen bat sartzeko hautua egin zuela, betiere Auzitegi Gorenak Alarde Tradizionalaren udal baimenaren zilegitasunari buruz emandako ebazpenen inguruko laburpen bat jasoz, betiere finantza eta antolakuntza laguntza publikorik ez duen ekimen pribatua den aldetik. Horri buruzko edukiari zehatz-mehatz men egin ondoren, honako hauxe ondorioztatzen zuen: *Este es, pues, el marco jurídico existente para la celebración del Alarde en el municipio de Irún. El Alarde tradicional, organizado por sujetos privados, no atenta contra el derecho a la igualdad que reconoce el artículo 14 de la Constitución. El Alarde tradicional no es más que una manera de entender y celebrar el Alarde, sin perjuicio de otras posibles, incluida la del Alarde igualitario.*

Irungo Berdintasunaren aldeko III. Plana prestatzeko jarraitutako partaidetza prozesuari zegokionez, udalaren erantzunak honako hauxe aipatzen zuen: *Udalak ez duela bere Planean Elhuyar Fundazio erakunde esleipendunak proposatutakoa jasotzeko betebeharra, ez eta haren metodologiari jarraiki herritarrek parte hartzeko prozesuan zehar sorrarazirikoa ere.*

4. Zentzu horretan, Emakundera ere jo genuen, legez erakunde hori baita adierazi behar duena ea udal plangintza Gizonezko eta Emakumezkoen arteko Berdintasunari buruzko 4/2005 Legeak ezarritako parametroei egokitzen zaien ala ez.

Emakumearen Euskal Erakundeak erantzun zigun Irungo Udalari igorritako txostena aipatuz; agiri horretan honela baloratzen zuen salatutako egoera:

Bestalde, zure idazkiaren gogoetekin erabat nator; hots, zalantzan jartzen dut prozesua benetan partaidea izan dela, eta argi ikusten dut udal borondate falta Irunen berdintasuna lortzeko neurriak eta estrategiak serioski planifikatzeko.

Emakunderen txostena irakurrita ulertzen da Irungo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana, oro har, bat datozela 4/2005 Legearekin eta EAEan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planeko jarraibideekin. Hala ere, Alardearen parte hartzeari dagokionez bestelako ondorio batera iritsi gara.



Irungo Udaletxeak adierazten du, informazio osagarria bidali zuenean, Plana egiteko, laguntza tekniko bat kontratatu zuela (Elhuyar fundazioa). Fundazio horrek baliatu zuen metodologian, herritarrek parte hartzeko prozesu bat egin zen. Orobat, Udalak azaldu duenez, aipatutako fundazioak egindako agirian Alardea aipatzen zen, eta jarduera batzuk proposatu ziren, baina jarduera horiek dokumentuan sartu ordez, esparru juridikoaren ildoak aipatu dira laburki, eta Udalak bere planean ez du zertan sartu Elhuyar fundazioa kontratistak proposatzen duena, ez eta fundazio horrek baliatutako metodologian herritarren partaidetzarako jarritako prozesuan sortutakoak ere

Txostenak gai horren inguruan Emakundek egindako gogoetak ere jasotzen ditu, eta horren harira esaten da Irungo Alardea -ekintza publikoa, festa-girokoa, herrikoia eta parte hartzean oinarritua- oraindik ere ez dela normal ospatzen, eta gizonekin batera berdin-berdin parte hartzeko eskubidea urratzen zaiela emakumeei. Hori dela eta, Emakundek beharrezkotzat jotzen du batetik, ahalegina egitea zerbait gehiago egiteko, herritarrei dei egin baino harago joateko, eta, bestetik, beste neurri batzuk hartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko gaitasun handiagoa duten neurriak hartzea, hain zuzen ere. Horrela, planean emakumeek berdinean parte hartzen laguntzen duen jardueraren bat sartzea proposatzen da. Horren haritik, 6. programan (erakundeak berdintasunaren aldeko Jarrera izateari buruzkoan), Udalak jendaurrean Alarde Mistoaren aldeko babes adierazteko jardueraren bat sartu behar litzateke, alarde hori baita emakumeei eta gizonei berdinean parte hartzen uzten dien bakarra. Horri lotuta, txostenean gogorarazten da Udalak alarde tradizionala deiturikoa baino ez duela hartzen; ondorioz, alarde berdinzailearen kontrako tratua erakusten du, erakunde den aldetik: alarde berdinzailea ikusezin egiten du, eta gutxietsi egiten du. Halaber, 5. programan (partaidetza soziopolitikoari buruzkoan), ospakizun honetan gizonekin balera berdintasunez parte hartu nahi duten emakumeen aldeko neurriren bat hartzeko ekintzaren bat sartu behar litzateke

4. Era berean, testuinguru honetan honako hau aipatu behar dugu: Arartekoak, Emakundek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bitartekaritza akademiko espezializatu baten bitartez aurrera eramaten diharduten prozesua; izan ere, haren bidez Irun eta Hondarribiko zenbait erakunde eta gizarte eragileren arteko elkarrizketa esparruak zabaltzeko asmoa dago, bi udalerrietako alardeen gatazkak konpontzeko.
5. Aurrekari horiek guztiak ikusirik, egokitzat jo dugu ebazpen hau ematea, betiere honako gogoetei jarraituz:





Gogoetak

1. Ez da espediente honen gaia zehaztea ea jarduera pribatu batek Konstituzioaren 14. artikulua aintzatetsitako berdintasunerako eskubidearen kontra jotzen duen ala ez, ez eta ezartzea ere ea udal batek hori ospatzeko baimena ematean zuzenbidearen arabera jokatzeko duen ala ez. Bestalde, askotarikoak dira sexu bateko edo besteko partaideei rola ematean berdintasun irizpideen arabera zuzentzen ez diren aisialdi, gizarte edota erlijio arloko jarduera pribatuak, betiere hori legez debekatuak izateko arrazoia izan gabe.

Irungo Udalak Alarde Tradizionala deritzonari emandako baimena ere ez da ildo horretakoa. Ondorioz, udalak Arartekoari emandako erantzunean aipatzen den marko juridikoa, arauzko ahalmen horren egikaritzapenari dagokionez garrantzitsua izan arren, ez da nahikoa hemen aurkezten diren gaiei konponbidea aurkitu ahal izateko. Izan ere, udal administrazioak Irungo Alardearen inguruko gatazkan duen zeregina juridikoki baloratzeko orduan, behar-beharrezkoa da kontuan hartzea udalaren jarduketak ez dela mugatzen gaur eguneko konpongabearen ondorioz – batera existitzen diren bi bertsioen baimena ematera. Zeren udal administrazioaren jarduketak ere men egin behar baitie ekitaldia bideratzeko jarri beharreko bitarteko publikoei, emandako onarpenari eta ikusgaitasunari eta, hala badagokio, udal agintarien presentziari ere, ekitaldia aurrera eramateko orduan, bai eta gatazka genero berdintasuna lortzeko diseinatutako politika publikoen arabera konpontzeko moduari ere.

Aipatutako politikak jarduera publikoak dira eta Administrazioak, partikularren ekimen pribatuez bestaldera, ezin ditu horiek egikaritu, berdintasun printzipioaren pean zorrotz-zorrotz jokatzeko ez badu. Beraz, marko juridikorik garrantzitsuena izango da kasu bakoitzean beharrezkotzat joko dena honako hau zehazteko: ea haren garapena printzipio horren arabera izan den ala ez, bai desberdintasunetik jokatzeko saihesteko zentzu erreaktiboan bai berdintasuna sustatzen duten ekimenak bultzatzeko zentzu proaktiboan.

Azken eremu horretan kokatzen da erakunde erreklamaziogileek gure gogoeten pean jarritako gai hau: esan nahi baita, Irungo Berdintasunaren aldeko III. Planak (hura prestatzeko jarraitutako partaidetza prozesuaren ondorioek proposatutakoaren kontra) inolako jarduketarik ez jasotzea Irungo herritarrak banatzen dituen eztabaida baten inguruan, hau da, emakumezkoek eta gizonezkoek udalerriko ospakizun sozial garrantzitsuenean bete dezaketen zereginari buruzko eztabaida baten inguruan.

2. Gai horri eman beharreko erantzuna Zuzenbidearen arabera eman behar da; horrek berekin dakar erreferentziazko arautegi baten beharra, baina, aipatutako



arrazoiengatik, hori ezin muga daiteke ekimen pribatuen baimenen administrazio ahalmena arautzen duenera.

Hori bai, gure ustetan, ezin da inola ere baztertu funtsezkoa den beste gogoeta bat: Zuzenbidearen Estatuan argudio juridikoa desberdinen arteko akordioetara iristeko bide saihestezina izan arren, agerian dago bide hori ez dela nahikoa izan banaketa gainditzeko, Alardean zatiketa horrek afektiboari, identitarioari, men egiten diolako. Egoera horrela enkistatzen denean, erakundeek legeria betetzeaz gain bestelako betebeharrak ere badituzte. Izan ere, haien erantzukizuna da zubiak eraikitzea eta topaguneak bultzatzea, ospakizunaren protagonistak diren herritarrak gatazka gainditzeko giltzarriak izan daitezen, betiere Alardearen bertsio baten nahiz bestearen aldekoak diren pertsonengan erkideak diren eta guztiek partekatzen dituzten balio demokratikoetatik abiatuz.

Zentzu horretan, ezin joka daiteke axolagabe, are gutxiago kexa hau eragin duten neurrien falta partaidetza prozesu baten ondorioz sortu zirela kontuan hartuz; izan ere, gure ustetan, halako prozesu bat aukera bat da aldarrikapen batengatik beste desadostasun batera ez iristeko. Kontuan hartzekoa da partaidetzaren aldeko metodologiak gatazka honen desblokeoa eragin dezakeela gizarte zibil antolatuaren oinarri zabala inplikatzeke gaitasuna duelako; halaxe egin zuen Elhuyarrek, Alardearen inguruan ikuspegi desberdinak dituzten pertsonen partekatzen duten helburua –Irunen Irunen gizonezko eta emakumezkoen arteko eskubide berdintasun eraginkorra– lortzera bideratutako politika publikoen proposamenean.

Egia esan, hori berori da ebazpen honen bosgarren aurrekariak aipatzen duen prozesuaren ildo. Erakundeen arteko ekimen berritzailea da eta haren birtualtasuna dago entzuteko eta elkarrizketan jarduteko bideak zabaltzeko aukeran, azken batean, hautu hori bideraturik baitago Alarde baten eta bestearen aldeko pertsonen eta gizarte eragileek gatazkari argudio bitartez heltzea lortzera bideratua, betiere balio partekatuen inguruko onarpenean oinarriturik. Arartekoak bere egiten du ikuspegi hori, eta nahi du ebazpen honek ekarpen bat egitea ildo horretan.

3. Administrazioak ezaugarri hauetako prozesu batek zabaltzen dituen sinergiak eta aukerak baliatzeko duen beharrari ez zaio haren autonomia kontrajartzen, partaidetza prozesuen emaitzei dagokienez. Irunen Berdintasunaren aldeko III. Plana prestatzeko aurkeztutakoak gai honi buruzko gizarte eskari argia erakusten zuen, egin-eginean ere herritarrik gehienak atsekabeturik dituen gatazka baten jarraipen eta kronifikazioari heltzeko eskaria, betiere Alardearen gainean duten jarreratik haratago. Zentzu honetan neurririk ez egotea nekez batera daiteke





Emakumezko eta Gizonezkoen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen espirituarekin; izan ere, legeak toki erakundeei ezartzen dizkie bere 7. 1k) artikuluari darizkion honako betebeharrak:

7. artikulua. – Tokiko administrazioaren eginkizunak.

1. – Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal-mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:

(...)

k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

Bestalde, ezin daiteke alde batera utzi Alardean modu parekidean parte hartzeko gatazka aurkezteko moldeek eta Irungo herritarrek horren inguruan hartzen dituzten jarreraren oinarriak zuzeneko zerikusia dutela emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunarekin. Eta berdintasun horixe da gai honi buruzko udal lanabesek oinarrian eta lehentasunez bilatu behar duten helburua. Hori dela eta, gure ustetan, gai honi buruzko neurririk ez hartzeak zalantza jartzen du berdintasuna planifikatzeko ezarritako legezko parametro materialen araberako egokitzapena, kasu honetan gizonezko eta emakumezkoen berdintasunaren aldeko helburuari men egiten dioten neurrien eta estrategien sustapena, betiere plangintzaren eremu subjektiboa eta lurraldea aintzat hartuz. Gure iritziz, gaur egun Irunen berdintasunaren aldeko plan bat prestatzeak emakumezkoek alardean parte hartzeko duten ageriko arazo larria aipatu ere egin gabe berekin dakar legeriak toki erakundeei ezarritako betebeharrak ez betetzea, betiere emakumezko eta gizonezkoen berdintasunaren inguruan politika publikoak planifikatzeko tresnek izan beharreko edukari dagokionez.

Illo horri jarraiki, gogoratu beharra daukagu Berdintasunari buruzko Euskal Legeak zenbait betebeharrak ezartzen dizkiela EAEko udalei; betebeharrak ezinbestean izan beha dute eragina berdintasunaren aldeko udal plangintza guztien edukietan. Besteak beste honako hauek nabarmendu nahi ditugu bereziki, kexa honetan azaltzen den arazoari dagokionez:

7. Artikulua Tokiko Administrazioaren eginkizunak

1.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal-mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:

(...)

b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.

(...)

c) Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiak egiten dituzten programen esparruaren barruan.

(...)

f) Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea

(..)

l) Bakoitzaren lurralde-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.

(...)

Azkenik, aipatzekoa da plangintzan emakumezkoek Alardean parte hartzeko arazoari aipamenik ez egiteko hutsunearen eta berdintasun arloan indarrean dagoen arautegi autonomikoaren edukiaren arteko kontrastea, betiere Berdintasunari buruzko Euskal Legearen 15. artikulua ezarritakoaren ildotik; izan ere, artikulua horrek honako hau ezartzen du:

15. artikulua: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak

(....)

3.- Foru-aldundiak eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute. Udalek banaka zein kide diren edo



ondore horietarako osa ditzaketen mankomunitateen bidez egin ditzakete jarduketa horiek. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza teknikoa eta dagokion foru aldundiaren laguntza ekonomikoa izango dituzte, batez ere ahalmen ekonomiko eta kudeaketa-ahalmen txikia dutenek.

4.- Aurreko bi paragrafoetan aipatutako planak eta programak onetsi aurretik, horiei buruzko txosten eman behar du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak zehazteko, hain zuzen, plan eta programon edukiak bat datozen legegintzaldi bakoitzaren hasieran Eusko Jaurlaritzak, 1. paragrafoan xedatutakoari jarraiki onetsi behar dituen jarraibideekin eta gidalerroekin.

4. Hori dela eta, bat gatoz Emakundek egiten duen balorazioarekin, adierazten duenean, ebazpen honen laugarren aurrekariarekin jasotakoarekin bat, Irungo Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunaren aldeko III. Plana oro har 4/2005 Legeari eta EAeko Gizonezko eta Emakumezkoen Berdintasunaren aldeko IV. Planaren gidalerroei egokitu arren, ateratzen den ondorioa desberdina dela Alardean parte hartzeko gaiari dagokionez.

Horrenbestez, geure egin behar ditugu eta, beraz, Irungo Udalari formalki gomendatu behar dizkiogu Emakumearen Euskal Erakundeak doikuntza gabezia hori zuzentzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak; izan ere, horiek hartuz, Berdintasunaren aldeko III. Plana indarrean dagoen EAeko Berdintasunaren aldeko VI. Planari egokituko zaio, bereziki 1. Ardatza, balio-aldaketa eta emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta soziala bultzatzen dituen.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikulua ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egiten da:

GOMENDIOA

Erakunde honek Irungo Udalari gomendatzen dio Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunaren aldeko III. Planean jaso dezala San Martzialeko Alardean emakumezkoek modu parekidean parte hartzen bultzatzera zuzentzen den jarduketaren bat. Zentzu horretan, 6. programan (erakundeek berdintasunaren alde



izan beharreko jarrerari buruzkoa) jarduketaren bat jaso beharko du udalak jendaurrean Alarde parekideari babesa adierazteko; izan ere, tradizionalari harrera egiteak berekin dakar beste Alardearen kontra egitea, ikusgaitasuna eta balio kentzen baitzikio maila instituzionalean.

Era berean, partaidetza sozio-politikoari buruzko 5. programari dagokionez, gomendatzen dio nahi duten emakumezkoek ospakizun horretan gizonezkoekiko berdintasun mailan parte hartzeko beharrezko neurrietara bideratu beharreko ekintzaren bat jaso dezala.

Azkenik, Irungo Udalarari gomendatzen dio beharrezko neurriak har ditzala Alardearen gatazkaren konponbideari begira erakundeen artean zabaldutako eremuaren markoan sustatzen diren topagune eta elkarrizketak sortzen laguntzeko, betiere plangintza prestatzeko orduan erabilitako metodologia parte-hartzaileak sortutako sinergiekin eskaintzen duten aukera baliatuz.